

JARDUERA-PLAN OROKORRA-2026

HERNANI

Hernanin, 2025eko urriaren 23an



Aurkibidea

SARRERA	3
2026RAKO AURREKONTUA: ATEZ ATEKO ETA KONPOSTAKO ZERBITZUAN	4
Aurrekontu orokorra: atez ateko bilketa eta konposta zerbitzua	7
Aurrekontuaren xehatzea zerbitzuetan	8
Aurrekontuaren xehaketa gastuen arabera	9
2026RAKO AURREKONTUA: KALE-GARBIKETAKO ZERBITZUAN.....	11
Aurrekontuaren xehaketa gastuen arabera	12
BI SAILEI DAGOZKIEN AMORTIZAZIOAK	14
2026RAKO INBERTSIO-PLANA ETA FINANTZAKETA	16
ERANSKINA	17
DATUEN BABESARI BURUZKO KLAUSULA. TRATAMENDUAREN ARDURADUNA BETEBEHARRAK INFORMAZIO PERTSONALA KUDEATZEARI DAGOKIONEZ	18

SARRERA

Hondakinen gaian aldaketen garaian murgilduta dago Europar Batasuna. Handik etorritako betebeharrak gurean eragina izan dute: udaletan hondakinen zerbitzuan zero defizita aplikatu beharra, politika fiskalen berrikusketa (sortzearen araberako ordainketa), sortutako hondakinaren azkentzearen kontrola (birrerabilpen-, birziklatze-, deuseztatze-tasen jakinarazpen eta kontrola, alegia).

Aldeko testuinguruak Garbitaniaren garapenean eragin positiboa du, Garbitaniaren kontestuan elkartutako herriek eginiko bideari orube egonkorragoa ezartzen baitie. Era berean, aurretiaz jositako lan teknikoak egun hartu beharreko hainbat erabaki eta inbertsio aldeztu aurretik landu eta ezagutzea dakar. Horrek guztiak adierazten digu, kalitatezko zerbitzua erdiesteko bidean, proiektuaren urrats estrategikoak norabide egokian egin direla, eta definitutako lau ardatzetan eragiten jardun behar dugula: ingurumenaren zaintzan, prezio justuan, norberak sortutako hondakin kopuruan eta langileen zaintza.

Hala, Garbitaniaren garapenerako 2026rako ekintza-planak honela eragingo du ezarritako ardatz horietan:

- 1.- Ingurumenaren zaintzari dagokionez, ekonomia zirkularra oinarri, konpostaren zerbitzuaren integrazioaren bideari ekin zion Garbitaniak 2025ean. Hiru herrietako ezaugarriak kontuan hartuta zerbitzu integrala amankomuna erdietsi nahi ditugu. Horretarako indartu da ekipo teknikoa: sortutako organikoaren kalitatea bermatu eta lurretik jasotakoari lurrari itzultzeko. Era berean, karbono aztarnari begira jarri da proiektua deskarbonizazio urrats neurgarriak egiteko asmoz.
 - 2.- Prezio justu eta sortutako hondakin kopuruari dagokienez, administrazio eta kudeaketa arloan digitalizazioaren azken urratsak ematen hasiak gara. Hala, Garbitaniak eskura jarriko ditu biztanleko eta urteko tona kopuruak eta frakzioko tona bakoitzeko biltze kostuak. Horrela, udalek jasotako informazio xehetuak politika berriei atea zabaltzeko eta, jada ezarritakoak aztertze bide berriak zabaltzeko ditu.
 - 3.- Bide berean, kontuan izanik aurrekontuaren %70etik gora giza baliabideen arloari dagokiola, enplegatuekin zerikusia duten hainbat eta hainbat kontu digitalizatzeko garaian gaude buru-belarri sartuta. Lan-baldintzen, kostuaren eta betebeharren arteko oreka lortu eta mantentzea da asmoa.
- Horiek izango dira 2026ko erronkak. Erronka potoloak, norabide bat marrazten dutenak: murriztu, berrerabili, birziklatu, betiere zehar lerro gisa euskararen eta genero berdintasunaren sustapena hartuta. Zero Zabor bidean, urratsak aurrera!



2026RAKO AURREKONTUA: ATEZ ATEKO ETA KONPOSTAKO ZERBITZUAN

Arestian aipaturiko helburuak kontutan hartuta 2026rako honako ekintza-plana adostu da:

Txuria	Bilketa-zerbitzuan zuzenean eragiten dute, eta ondorioz, aurrekontuan ere bai
Hori argia	Egiteko lanak dira, baina bilketa-zerbitzuan ez dute zuzenean eragingo 2026.urtean.
Laranja	Ez dute bilketan eragingo zuzenean, baina bai aurrekontuan.

			NOIZ LANDU	ARDURADUNA	TALDEA
Sagardo garaiko bilketa estrak	Edalontzi berrerabilgarriak puntu jakin batzuetatik bilduko dira eta, ondoren, Akarregira jaitsiko dira. Han, kaxetan sartzea ez da Garbitaniaren ardura izango		Abendua-urtarrila	Koordinatzaileak / Giza baliabideak (kontratazio mota, egutegia)/teknikoa	G.B+ koordinatzailea+ teknikoa
	Sagardotegi garaian goizeko ekipoaren ordutegia honakoa izango da 6:30-14:30 (urtarrilak 19tik ekainaren 30 bitarte, biak barne). Hortik aurrera, eta uztailaren 31 arte, 15 minutu gehiago jasoko dira, denboraldia luzatzen den neurrian	Data hauetatik antzina, sagardotegiren batek zerbitzua eskatuz gero, aparteko zerbitzu gisa kobratuko da.	Urria-abendua	Koordinatzailea/ Giza baliabideak (kontratazio mota, egutegia)/teknikoak (ibilbideak)	G.B. Teknikoak
Errefusa bilketa	Fokuen jarraipena	Kale-garbiketako hezitzaileak eta herriko hezitzaileek jarraipena egingo diote gaiari	Lerro iraunkorra	Teknikoa (plangintza eta jarraipena)/hezitzaileak (plangintza eta exekuzioa)/udala (irizpide eta kopuruen zehaztea)	Hernaniko udaleko koordinazio gunea
	Erreka bazterretako hondakinen bilketa	Iglu berdea jarrazti	Maiatza	udala-herriko hezitzailea	Hernaniko udaleko koordinazio gunea
	Eraikin publikoetan jasotako errefusa	Igerilekuen hondakinen bilketa	Maiatza (antolaketa) Ekaina-iraila bildutakoaren jarraipena	Koordinatzaileak / hezitzailea	Hernaniko udaleko koordinazio gunea



		Areto publikoetako hondakinen bilketa	Iraunkorra	Hezitzailea (jarraipena)	Hernaniko udaleko koordinazio gunea
		Ikastetxeetako hondakinen bilketa	Iraunkorra Ekaina eta iraila (kurtso hasiera eta amaiera)	Hezitzailea (jarraipena) Koordinatzaileak (ikasturtearen hasiera eta amaiera)	Hernaniko udaleko koordinazio gunea
Poligonoen bilketa	Enpresei formazio eta aholkularitza		Iraunkorra	Hezitzailea (exekuzioa)/ teknikaria (irizpideak)	
	Fakturazioa eta sortzearen araberako ordainketa	Jarraipena. Datu basearen eguneratzea	Iraunkorra	Hezitzailea	
	Fakturen erreklamazioa			Udala-hezitzailea	
	Sortzaile handien jarraipena	Plangintza osatu eta lehen jarraipenak egiten hasi		Hezitzailea (exekuzioa eta plangintza)/ teknikoak (plangintza eta jarraipena)	Hernaniko udaleko koordinazio gunea
Komertzioetako errefusa	2026an irakurketak egingo dira 2027ko politika fiskala diseinatzeko behar diren datuak izateko. Errefusaren irakurketak egingo dira soilik.	Fakturazioan, 2027an aplikatzea aurreikusten da	Urte osoan	Udala/Teknikoa / hezitzailea/gidari-biltzaileak	Ezarpenerako koordinazio gunea
Miniguneen zerbitzua	Bilketa hilean behin egingo da	Miniguneetatik jasotakoaren pisua jakiteko bideak eraiki	Iraunkorra	Koordinatzaileak / Giza baliabideak (egutegiak)	
Konpostaren koordinazio gunea sortu	Konpostaren koordinazio gunearekin jarraitu.	Zerbitzu integralaren jarraipena		Udal teknikaria eta Garbitaniako teknikaria	Konpostaren koordinazio gunea
	Erreminta informatikoa hiru udalerritan aplikatu eta irizpideak bateratzen jarraitu			Teknikoa	
Auzo-konposta	Azpiegituren mantentzen lanak eta ireki eta ixte sistemak gainbegiratu	Sistema berriak ebaluatu erabiltzaileen kontrola bermatze aldera		teknikoa- udaleko teknikoa (hezitzaileak asistentzia)	Konpostaren koordinazio gunea
	Dekretuak arautzen duen	Baliabideen baitan eta dekretua	Urria-apirila datuen bilketak lehentasuna,	Hezitzailea-teknikoa	Garbitania



	aldagaien jarraipena	indarrean sartu bitartean, urtaro bakoitzeko lehentasunezko lanen arabera jardun	udaran oxigenazioari jarri arreta berezia		
	Mantenua: 49 guneen ikuskaritza Dekretuaren zehaztapenak oinarri hartuta.	Litekeena da etxolak hustu eta gainbegiratu ostean, zonalderen batean azpiegituraren bat kentzea. Oro har, berrantolatzea	Iraunkorra	Hezitzailea (informea teknikoek)	Garbitania
	Eusko Jaurlaritzaren arauaren bilakaeraren jarraipen zuzena		Iraunkorra	Teknikoa-Hezitzailea	Garbitania
	Azpiegiturak txukun mantentzen daitezkeen gainbegiratzea	Akarregiko eta harrobiko guneak egoki erabiltzen direla gainbegiratu		Hezitzailea (asistentzia)-teknikoa	Garbitania
	Zerbitzuaren eta konpostaren kalitatearen kontrola	Protokoloen aplikazioa dauden baliabide eta urtarotara egokituta		Teknikoa-udala	
	Analitikak	Garbitaniak kudeatu			
	Baheketa	Garbitaniak kudeatu			
	Egituratzalearen erosketak	Garbitaniak kudeatu			
	Edukiontzien alokairua	Garbitaniak kudeatu			
San Joanetako bilketa	San Joanetako zerbitzua	Bilketa eta garbiketa zerbitzuak: trataera berezia pankartak	Maiatza-ekaina-uztaila	Koordinatzaileak (KG barne)-teknikoak	Garbitania
Festa eta ekitaldiak	Ontzien banaketa eta jarraipena	Egiturazko lanetan sartu eta feedbackaren bidez kontrola	iraunkorra	Hezitzailea-koordinatzailea-teknikoa	Garbitania
Ereñotzuko bilketaren berrikustea			Teknikoa		Garbitania/Udala /Ereñotzu
Larrialdi guneak	Ontzien eta eremuaren garbiketa	Ezarritako egutegiaren arabera		koordinatzaileak	Garbitania
Puskatutako kirtanak berritzea	Zintzilikatzeko oinarrietan lurtearen dauden kuboetako kirten puskatuak berritu	Urtean behin	Urria-azaroa	Koordinatzaileak	Garbitania

Zintzilikatzeko en garbiketa	Herri osoko zintzilikatzeko en garbiketa	Ezarritako plangintzaren arabera.		Koordinatzaileak	Garbitania
Haizeak botatako edukiontzien bilketa eta erretiratzea	Kale-garbitzaileek euren ibilbidean topatzen dituztenak erretiratu				

Aurrekontu orokorra: atez ateko bilketa eta konposta zerbitzua

Atal honetan, Garbitaniaren aurrekontu osotik Hernaniko Udalerriri dagozkionak bilduko ditugu. Lehenik, orotara zerbitzu guztien aurrekontua jasoko da; ondoren, kopuru hura zerbitzuen baitan xehatuko dugu.

Gastu eta diru-sarreraren atalean, honako aurrekontu orokor hau aurreikusten da (herria, poligonoak, auzo konposta eta errefusa gutxitzeko heziketa-lanak barne):

		OROKORRA
Bilketa- eta konposta-zerbitzua		
	Giza baliabideak: zuzen eta ez zuzenak	1.874.936,06 €
	Zuzeneko ustiapen kostuak	575.000,77 €
	Errentamendu eta kanonak	215.143,20 €
	Konponketa eta kontserbazioa	76.205,44 €
	Gasolioa	114.459,19 €
	Ibilgailuen aseguruak	7.896,83 €
	Ontziak eta kirtanak	32.006,93 €
	Prebentzioa/nben erosketa	12.456,07 €
	Eguraren bilketa	36.270,00 €
	Errefusaren garraioa	18.414,00 €
	Bahetze-birrintze	17.732,55 €
	Egituratzailaren erosketa	8.252,20 €
	Edukiontzien alokairua	7.986,00 €
	Analitikak	9.190,52 €
	Konpostako bestelako lanak	7.051,75 €
	BIDEGI	5.071,67 €
	Ibi zerga zuzenak	442,66 €
	Ibilgailuen garbiketa	6.421,76 €
	Amortizazio zuzenak	31.299,87 €
	Gastu orokorrak^(*)	77.258,98 €
	Guztira	2.558.495,78 €

(*) Profesional independenteen zerbitzuak, gainontzeko aseguruak, banku zerbitzuak, publizitatea, bestelako zerbitzuak, bulego materiala,

telefonoa, bestelako tributuak, formazioa, amortizazio ez zuzenak

Aurrekontuaren xehatzea zerbitzuetan

Aurreko atalean jasotako aurrekontuaren xehaketa honako hau da:

a) Herriko bilketa-zerbitzua:

	Bilketa
Giza baliabideak: zuzen eta ez zuzenak	1.456.356,36 €
Zuzeneko ustiapen kostuak	362.287,35 €
Errentamendu eta kanonak	155.158,08 €
Konponketa eta kontserbazioa	67.516,62 €
Gasolioa	93.812,15 €
Ibilgailuen aseguruak	7.015,33 €
Prebentzioa/nben erosketa	10.990,65 €
Errefusaren garraioa	18.414,00 €
BIDEGI	4.279,68 €
IBI zerga zuzenak	387,09 €
Ibilgailuen garbiketa	4.714,35 €
Amortizazio zuzenak	21.894,07 €
Gastu orokorrak	57.309,37 €
Guztira	1.897.847,76 €

b) Poligonoen bilketa eta heziketa-lanak

	Bilketa
Giza baliabideak: zuzen eta ez zuzenak	262.650,11 €
Zuzeneko ustiapen kostuak	130.127,73 €
Errentamendu eta kanonak	59.985,22 €
Konponketa eta kontserbazioa	8.653,87 €
Gasolioa	20.455,18 €
Ibilgailuen aseguruak	743,07 €
Prebentzioa/nben erosketa	1.465,42 €
Egurraren bilketa	36.270,00 €
BIDEGI	791,99 €
IBI zerga zuzenak	55,57 €
Ibilgailuen garbiketa	1.707,41 €
Amortizazio zuzenak	8.155,80 €
Gastu orokorrak	12.483,99 €
Guztira	413.417,64 €

c) Ontzien erosketa herri zein poligonoetarako

Ontzien eta kirtenen erosketa	32.006,93 €
Gastu orokorrak	996,61 €
Guztira	33.003,54 €

d) Errefusa gutxitzeko heziketa-lanak:

Giza baliabideak: zuzen eta ez zuzenak	69.005,44 €
Gastu orokorrak	2.148,64 €
Guztira	71.154,08 €

e) Auzo konpostaren zerbitzua:

	Konposta
Giza baliabideak: zuzen eta ez zuzenak	86.924,15 €
Zuzeneko ustiapen kostuak	50.578,24 €
Gasolioa	191,86 €
Ibilgailuen aseguruak	138,43 €
Konponketa eta kontserbazioa	34,95 €
Bahetze-birrintzea	17.732,55 €
Egituratzalea	8.252,20 €
Edukiontzien alokairua	7.986,00 €
Analitikak	9.190,52 €
Konpostaren bestelako gastuak	7.051,75 €
Amortizazioak	1.250,00 €
Gastu orokorrak	4.320,37 €
Guztira	143.072,77 €

Aurrekontuaren xehaketa gastuen arabera

a) Giza baliabide zuzenak

Atal honetan, datorren urteko egitekoei eta etorkizunean etor daitezkeen lanei aurre egiteko giza baliabide zuzenak biltzen dira. Zehazki Hernaniko aurrekontuaren %67,21 osatzen du atalak eta honela banatzen da:

POSTUA	TALDEA	Kontratuaren iraupena	KOPURUA	Urteko soldata gordina (oinarriak)
Ingurumen teknikariak	A	Laboral finkoa	Ekipoaren %39,40	50.367,34 €
Koordinatzaileak	C2	Laboral finkoa	Ekipoaren %60,95	41.539,88 € (baliagarritasuna)

		Opor ordezkapena		
Hezitzailea	C1	Laboral finkoa Ordezkoak oporak	3,75	41.539,88 €
Gidari-biltzailea	LT	Laboral finkoa Ordezkoak oporak	21,94	32.096,54 € (gidari plusa)
Peoi/peoi balioanitz	LT	Laboral finkoa	0,31	32.096,54 €
Absentismoa				%4

b) Bilketari dagozkion giza baliabide ez zuzenak

Garbitania osoari dagokionez, giza baliabide ez zuzenen deskribapena honako hau da:

POSTUA	TALDEA	Kontratuaren iraupena	KOPURUA	Urteko soldata gordina (oinarriak)
Gerentea	A	Laboral finkoa	1	63.606,76 €
Giza baliabidetako arduraduna	A	Laboral finkoa	1	63.606,76 €
Zerbitzu juridikoak	A	Laboral finkoa	1	52.573,34 €
Arduradun finantzarioa	A	Laboral finkoa	1	52.573,34 €
Administraria	C1		1.5	41.539,90 €

Garbitaniaren aurrekontu osoa kontutan hartu, aurrekontuaren %67,21 zuzeneko giza baliabideek osatzen dute eta %6,08a ez zuzenek. Hortaz, egitura honen arabera, giza baliabide zuzenaren % 9,04 da giza baliabide ez zuzena: $6,08/67,21=9,04$. Honenbestez, giza baliabide zuzenen guztizko kostuaren %9,04eko kopurua, giza baliabide ez zuzenen kostua estaltzera bideratzen da.

c) Kanpo-zerbitzuak

Atal honetako gastu guztien %88,07 zuzeneko ustiapen-kostuek osatzen dute, eta gainerako %11,93a gastu orokorrak dira.

d) Gastu orokor eta giza baliabide ez zuzena

0,090420758	giza baliabide zuzenarekiko giza baliabide ez zuzena
0,031137288	Gastu orokorrak beste gastuekiko atez ateko hondakinen bilketan

2026RAKO AURREKONTUA: KALE-GARBIKETAKO ZERBITZUAN

Honako hau da adostutako ekintza-plana:

Txuria	Zerbitzuan zuzenean eragiten dute, eta ondorioz, aurrekontuan ere bai
Hori argia	Egiteko lanak dira, baina zerbitzuan ez dute zuzenean eragingo 2026.urtean.
Laranja	Ez dute eragingo zuzenean zerbitzuan, baina bai aurrekontuan.

ZERBITZUA	ERLAZIOAK	NOIZ LANDU	ARDURADUNA	TALDEA
Zerbitzuaren jarraipen iraunkorra	1) Ibilbideen egokitasuna: luzera eta maiztasuna 2) Intzidentziak ibilbideetan kokatu, ostera ondorioak aztertzeko 3) Soinuaren kontrola. Intzidentziak aztertu 4) Asteburuetan eta jai egunetako koordinazioa 5) Jardunaldiaren hasiera: lanen banaketa	Iraunkorra	Koordinatzailea/langile-burua	Koordinatzailea/hezitzailea/Teknikoa/zuzendaritza/udala
Txotx-garaiko garbiketa bereziak bideratu	Zisterna eta uraren bidezko garbiketa (langile bat gehiago)		Koordinatzailea/langile-burua	Koordinatzailea/langile-burua/hezitzailea
Urtea hiru arotan banatu	a) Txotx-garaia b) Poligonoak c) Hosto garaia		Koordinatzailea/langile-burua	Koordinatzailea/langile-burua/hezitzailea
Poltsen eta isurketen bilketa	Ezarrita dagoen prozedura aplikatu: lehenik eremua publikoa den baieztatu, ondoren zerbitzua definitu, azkenik aurrekontuak igorri udalera		Udala/Koordinatzailea/hezitzailea / kudeaketa saila	
	Poltsen bilketa egin (zakurren gorotzen bilketa puntuen bilketa)		Garbitania	
Zalantzarriak diren puntuen garbiketarako protokoloa	Eremua publikoa edo pribatua dela zalantzarria denean, bildu beharreko hondakinen arrisku maila		Udala/koordinatzailea	



	zalantzarria denean, aurrez ezarritako prozedurak aplikatu				
Koordinazio mahaia	Hilean behineko maiztasuna			Garbitania/udala	
Baliabideen garbiketa eta mantenurako protokoloak zehaztu	Ibilgailu bakoitzeko instrukzioen fitxa osatu eta langileei helarazi			Garbitania	
Altzari publikoen eta estolden garbiketa	Altzari publikoen (markesina, eserleku eta seinaleak) eta estolden garbiketak lurraren garbiketaren aurretik lehentasuna dute.				
Lurraren garbiketa	Aurreko lehentasunen arabera, erritmo berrira aurreikuspenen plangintza egingo da				

Hauxe da aurrekontua:

	KG
Giza baliabideak: zuzen eta ez zuzenak	1.632.335,90 €
Zuzeneko ustiapen kostuak	268.557,43 €
Errentamendu eta kanonak	83.626,82 €
Konponketa eta kontserbazioa	59.055,35 €
Gasolioa	47.614,62 €
Ibilgailuen aseguruak	14.357,70 €
Prebentzioa/nben erosketa	13.621,61 €
Errefusaren garraioa	6.935,35 €
Poltsak	13.894,45 €
Garbiketa produktuak	18.297,07 €
BIDEGI	359,57 €
IBI ZERGA ZUZENAK	1.565,65 €
Ibilgailuen garbiketa	9.229,24 €
Amortizazio zuzenak	37.650,55 €
Gastu orokorrak	74.680,98 €
Guztira	2.013.224,85 €

Aurrekontuaren xehaketa gastuen arabera

a) Giza baliabide zuzenak

Atal honetan, datorren urteko egitekoei eta etorkizunean etor daitezkeen lanei aurre egiteko giza baliabide zuzenak biltzen dira. Zehazki Hernaniko aurrekontuaren %74,35 osatzen du atalak eta honela banatzen da:

POSTUA	TALDEA	Kontratuaren iraupena	KOPURUA	Urteko soldata gordina (oinarriak)
Koordinatzaileak	C2	Laboral finkoa Opor ordezkapena	1,16	45.052,48 €
Hezitzailea	C1	Laboral finkoa Ordezkoak oporrak	1	41.539,88 €
Gidari-biltzailea	LT	Laboral finkoa Ordezkoak oporrak	4,95	32.096,54 € (gidari plusa)
Peoi/peoi balioanitz	LT	Laboral finkoa	20,95	32.096,54 €
Absentismoa				%4

b) Bilketari dagozkion giza baliabide ez zuzenak

Garbitania osoari dagokionez, giza baliabide ez zuzenen deskribapena honako hau da:

POSTUA	TALDEA	Kontratuaren iraupena	KOPURUA	Urteko soldata gordina (oinarriak)
Gerentea	A	Laboral finkoa	1	63.606,76 €
Giza baliabidetako arduraduna	A	Laboral finkoa	1	63.606,76 €
Zerbitzu juridikoak	A	Laboral finkoa	1	52.573,34 €
Arduradun finantzarioa	A	Laboral finkoa	1	52.573,34 €
Administraria	C1		1.5	41.539,90 €

Garbitaniaren aurrekontu osoa kontutan hartu, aurrekontuaren %74,35 zuzeneko giza baliabideek osatzen dute eta %6,72a ez zuzenek. Hortaz, egitura honen arabera, giza baliabide zuzenaren % 9,04 da giza baliabide ez zuzena: $6,72/74,35=9,04$. Honenbestez, giza baliabide zuzenen guztizko kostuaren %9,04eko kopurua, giza baliabide ez zuzenen kostua estaltzera bideratzen da.

c) Kanpo-zerbitzuak

Atal honetako gastu guztien %88,07 zuzeneko ustiapen-kostuek osatzen dute, eta gainerako %11,93a gastu orokorrak dira.

d) Gastu orokor eta giza baliabide ez zuzena

0,090420758	giza baliabide zuzenarekiko giza baliabide ez zuzena
-------------	--

0,038524267	Gastu orokorrak beste gastuekiko kale-garbiketan
-------------	--

BI SAILEI DAGOZKIEN AMORTIZAZIOAK

a) Ibilgetu ez materialak. Amortizazio zuzenak ondasun honi dagozkio:

Uhondakinak	0,00 €
UHONDAKINAK APLIKAZIOAREN GARAPENA 2024	394,51 €
2026rako aurreikuspenak	3.811,50 €

b) Ibilgetu materiala. Amortizazio zuzenak ondasun hauei dagozkie:

Takillak Net Quintos KG (48)	375,35 €
Altzariak Akarregi (56)	106,49 €
Altzariak Akarregi (57)	56,91 €
Ordenagailua eta instalakuntza lastaola (47)	0,00 €
Berri Lantegi sopladora(60) Stihl	29,90 €
Berri Lantegi sopladora(60) Stihl	29,90 €
Berri lantegi asopladora (64)	29,90 €
Berri Lantegi sopladora(61) FS70 BG 66 d.	56,62 €
Mahai sendoa + 3atee sarrairen bobinak (59)	87,73 €
Iñigo Egur lanak Akarregi (65)	117,37 €
Francisco Luis Zulaica Otegui elektrizitatea KG (63)	2.057,85 €
Sopladora BR 500 BERRI Lantegia F18 4614 (66)	50,92 €
Akarregiko edukiontzia (containerra) (69)	249,95 €
Barredora E2224 (68)	0,00 €
Akarregiko aireztapen sareta (71)	366,02 €
Elurra kentzeko palaren gomak (73)	302,12 €
Akarregiko atearen mekanizazioa (74)	314,84 €
Akarregiko suteen aurkako sistema (75)	720,08 €
Piaggio maxi porterra 5352-LKL (78)	0,00 €
4 ARMAIRU 84X90X45 cm HAYA. ERIMA (80)	77,63 €
HIDROGARBIGAILUA. URLAN SL (81)	2.704,35 €
takillak Net Quintos lastaola berriak (77)	60,38 €
5352LKL PIAGGIOAREN TAPA (83)	63,89 €
ESKU-TERMINALA ETA SEHASKA (TECNIPESA) (84)	0,00 €
5352LKL PIAGGIOAREN EGITURA HIDROGARBIGAILUARENTZAT (89)	448,31 €
FR 460 TC-EFM MOTODESMALEZADORA (92)	108,42 €
PIAGGIO MAXXI NP6. 8154LPM (94)	3.605,80 €
PIAGGIO MAXXI NP6 CAJA BASCULANTE. 8038LPM (95)	3.625,16 €
ESKU-TERMINALA ETA SEHASKA (TECNIPESA) (96)	543,76 €
XIAOMI REDMI 10C4 - HERNANIKO POLIGONOAK (103)	34,07 €
xiaomi redmi 10c4 KG (106)	33,80 €

Akarregiko bulegoak (107)KG	1.331,00 €
Goupil 9882 MKS(110)	16.932,74 €
SOPLADORA BG 66-D (117) KG	34,90 €
MUGIKORRA OPPO A79 5G 8+256GB BLACK	47,79 €
KALE-GARBIKETAKO KARROA 10-9830	96,20 €
KALE-GARBIKETARAKO KARRO HERDOILGAITZA	196,93 €
TRANSPAleta PU SINEX 195.3	52,64 €
HAIZE-MAKINA BG 66-D	34,90 €
ZULAGAILU KOLPEKARIA BSB18C2BL	33,37 €
HAIZE-MAKINA BG 86	32,80 €
DESBROZADORA MOTXILA STIHL FR 460 TC-EFM	108,53 €
SAMSUNG MONITOREA FULL HD LF27T450FQRXEN	35,09 €
SAMSUNG MONITOREA FULL HD LF27T450FQRXEN	35,09 €
STARTECH DOCKSTATION USB 3.0	22,99 €
HAIZAGAILU ELEKTRIKOA 1 BGA 300 STIHL	109,35 €
HAIZAGAILU ELEKTRIKOA 2 BGA 300 STIHL	109,35 €
AR 3000L + KABLEA + EGOKIGAILUA 1	290,85 €
AR 3000L + KABLEA + EGOKIGAILUA 2	290,85 €
AL 501 KARGAGAILUA 230V 1	27,75 €
AL 501 KARGAGAILUA 230V 2	27,75 €
HIDROGARBIGAILUA 14 HP	653,40 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 5878	19,80 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 1668	19,80 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 4218	19,80 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 1478	19,80 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 1973	19,80 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 0926	19,80 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 1577	19,80 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 2832	19,80 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 2419	19,80 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 6412	19,80 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 2096	19,80 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 6529	19,80 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 2238	19,80 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 3467	19,80 €
MOTOROLA MOTO G24 8GB 0900	19,80 €
KAMIOI BERRIA ORGANIKOA	37.558,40 €
600L-KO UR-BIDOI HOMOLOGATUA	94,38 €
TERMO ELEKTRIKOA 200L	176,69 €
SMARTPHONE RUGERIZADO 6451	27,80 €
SMARTPHONE RUGERIZADO 4894	27,80 €
SMARTPHONE RUGERIZADO 8333	27,80 €
SMARTPHONE RUGERIZADO 1451	27,80 €
OUKITEL WP32 MUGIKORRA 0037	27,80 €
OUKITEL WP32 MUGIKORRA 0994	27,80 €

TERMINAL X-STARTION. XS"-DFB-RFID IRAKURGAILUA	161,41 €
TERMINAL X-STARTION. XS"-DFB-RFID IRAKURGAILUA	161,41 €
MOTOROLA MOTO G24 6.56"HD OCTA CORE ANDROID	29,90 €
2026rako aurreikuspena	11.863,06 €

2026RAKO INBERTSIO-PLANA ETA FINANTZAKETA

2026rako Garbitanian aurreikusten diren inbertsioen nondik norakoak honako hauek dira:

Inbertsio-plana		
Azpiegiturak	Egoitzako obrak	96.800,00 €
Digitalizazioa	Zerbitzuaren digitalizazioa	15.125,00 €
	Uhondakinak	9.680,00 €
	Enplegatuaren gunea	6.050,00 €
	Irakurgailuak	10.890,00 €
Webgunea		7.260,00 €
Altzariak		2.259,00 €
Telefonoak, arropa lehorgailuak, V16		1.211,05 €
	OROTARA	149.275,05 € aurreikuspena

Berau finantzatzeko iturri propioaz gain, digitalizazioaren gaian dirulaguntzetara aurkeztea aurreikusten da.



ERANSKINA

DATUEN BABESARI BURUZKO KLAUSULA. TRATAMENDUAREN ARDURADUNA BETEBEHARRAK INFORMAZIO PERTSONALA KUDEATZEARI DAGOKIONEZ

Klausula honek GARBITANIAk, legeak hala aginduta eta datuak babesteko indarrean dagoen araudiari dagokionez, bere gain hartzen dituen betebeharrak ezartzen ditu, Agindutako zerbitzuaren hornidura gauzatzean, udalen datu eskuordetuen tratamendua dela-eta, udala da tratamenduaren erantzule eta GARBITANIA tratamenduaren arduraduna.

Horrenbestez, GARBITANIA, tratamendu-arduraduna den aldetik, eta haren zerbitzura dauden langileak behartuta daude honako betebeharrak hauek betetzera, datuak babesteko araudiak berariaz eskatzen duelako:

1. Zerbitzua emateagatik jaso eta/edo sortu diren tratamenduaren helburu diren datu pertsonalak mandatuaren helbururako bakarrik erabiltzea. Datuak ezin izango ditu inola ere erabili bere xedeetarako, ezta gomendioaz kanpoko beste helburu batzuetarako ere, eta ez die lagako, hedatuko edo transmitituko gomendioaren ondoriozko zerbitzuaren garapen-esparrutik kanpoko hirugarren pertsona edo erakundeei.

2. Datuak Udalaren jarraibideen arabera tratatzea, tratamenduaren erantzulea den aldetik. Ildo horretan, arduradunak uste badu jarraibideren batek datuak babesteko araudia urratzen duela, berehala jakinaraziko dio.

3. Idatziz, tratamenduaren ardura duen udalaren izenean egindako tratamendu-jardueren kategorien erregistroa eramatea, bai eta tratamenduaren arduradun gisa Garbitania dituen barne-jardueren erregistroa ere.

4. Datuak kudeatzea dakarren tratamenduren bat azpikontratatu behar bada, eta azpikontratazio hori ez badago aurreikusita zerbitzua emateko kudeaketa-gomendioan, aldezturik eta idatziz jakinarazi beharko zaio tratamenduaren erantzule den erakundeari, hoguei (20) egun natural lehenago. Bertan, azpikontratatu nahi diren tratamenduak adieraziko dira, eta argi eta garbi identifikatuko da enpresa azpi-kontratista eta harekin harremanetan jartzeko datuak. Udal erantzuleak ez badu epe barruan aurka egiten, orduan kontratazioak aurrera egin ahal izango du.

Egoera horretan, pertsona autonomoa edo enpresaburu indibiduala edo azpikontrataturako enpresa tratamendu-arduradunorde bihurtuko da, eta, era berean, dokumentu honetan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu. Arduradunordeak bete betebeharrak betetzen ez baditu, hasierako arduradunak erantzukizun osoa izaten jarraituko du tratamenduaren erantzule den erakundearen, kontrol-agintaritzen eta eragindako pertsonen edo betebeharrak betetzeari dagokionez eskudun diren beste erakunde batzuen aurrean.

5. Egindako enkarguaren ondorioz eskuratzen dituen datu pertsonalei dagokienez, sekretu- eta konfidentzialtasun-betebeharrari eustea, prestazioa hasten denetik edo amaitu ondoren ere bere betebeharra izango da. Betebehar hori Garbitaniaren konturako tratamenduaren edozein fasetan esku har dezakeen pertsona orori zabaltzen zaio.

Horretarako, Garbitaniak bermatu beharko du datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak konpromisoa hartzen dutela, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta datuen tratamendu egokirako dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko. Neurri horiek behar bezala informatuta eta prestatuta egon beharko dute, eta tratamenduaren erantzule den erakundearen esku utzi beharko dute hori egiaztatzen duen dokumentazioa.

6. Udalari laguntzea honako hauei erantzuten: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke eta aurkaratzeko, tratamendua mugatzeko, datuak transferitzeko eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubideak baliatzeari, profilak egitea barne. Garbitaniak datu pertsonalen tratamenduari buruzko eskaera bat jasotzen badu, eskaera hori udalari bidaliko dio, eta Udalak eskaera ebatzeko eskatzen dituen jarduketa guztiak egiten lagunduko dio.

7. Udalari jakinaraztea, tratamenduaren erantzulea den heinean eta bidegabeko atzerapenik gabe, edozein kasutan, 48 orduko gehieneko epea baino lehen, bere kargura dituen datu pertsonalen segurtasun-arrakalak; gorabehera dokumentatzeko eta jakinarazteko beharrekota den informazio garrantzitsu guztia gehituko da. Jakinarazpena ez da beharrezkoa izango segurtasunaren urraketa hori pertsona fisikoen eskubide eta askatasunentzat arriskutsua izatea gertagaitza denean.

8. Udalari datuen babesari buruzko eraginaren ebaluazioak egiten laguntzea, hala dagokionean.

9. Udalari laguntzea Datuak Babesteko Euskal Bulegoari aurretiazko kontsultak egiten.

10. Udalaren esku jartzea bere betebeharrak betetzen dituela frogatzeko behar duen informazioa, bai eta erantzuleak edo hark baimendutako beste auditore batek egiten dituen auditoretzak edo ikuskapenak egiterakoan ere.

11. Datu horien tratamenduen arriskua kontuan hartuta, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolamenduzkoak hartzea; neurriek bereziki saihestu behar dute datu pertsonalak ustekabean edo legez kontra suntsitzea, galtzea, ustekabean edo legez kontra aldatzea, eta datu horiek baimenik gabe komunikatzea edo eskuratzeta.

12. Udalak eta Garbitaniak aurre egingo diete, hurrenez hurren, datuak babesteko araudia eta klausula hauek aplikatzetik eratorritako erreklamazio eta kalte-ordainei, bai beren artean bai hirugarren pertsona edo erakundeen aurrean, beren betebeharrak ez betetzeagatik sortutako kalte-galerak direla eta.

13. Datuak babesteko klausula horien indarraldia kudeaketa-gomendioaren indarraldiari lotuta geratzen da.